

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

Saila	Laburpena	
Obrak/ Udaltzaingoa	Muzategiko bizilagun batek salatu du ikastetxeetako neska-mutikoek eta Indianokuan ibiltzen direnek txiza egiten dutela askotan arkupeetako bazterrean, eta oso usain txarra egoten dela. Proposatu du komun batzuk jartzea plazan.	Ezinezkoa da teknikoki komun batzuk jartzea Plaza horretan, plaza garaje batzuen gainean dagoelako. Bestalde, kalean norbait txiza egiten ikusten denean salaketa egiten da. Errebal Plazia eraikina martxan jarri ondoren, eraikinean dauden komunak erabil daitezke.
Udaltzaingoa	Herritar batek galdetu du ea nola dagoen Eibar 30 km/h-ko hiri bihurtzearen prozesua.	2021eko martxoan ezarri zen Eibar 30.
Hirigintza	Galdera bat egin dute jakiteko zer ekintza-plan duen Udalak gazteen lokal ez legalizatuei buruz.	Udalak legezkatu gabeko gazteen lokalei buruz jasotako salaketa zehatzen aurrean esku hartzen du. Lokalak legezkatzea eskatzen du, eta, hori ezinezkoa bada, itxi egiten ditu.
Hirigintza	Informazioa eskatu dute jakiteko zer erabilera eman behar dioten Bittor Sarasketako epaitegi zaharraren eraikinari.	Bittor Sarasketako epaitegi zaharretan zuzkidurako etxebizitzak eraiki behar dira. Eusko Jaurkitza da eraikinaren jabea eta egitasmoaren sustatzailea.
Obrak	Galdera bat egin dute Errebal Plaziaren inaugurazioa noiz izango den jakiteko.	Plaza estalia eta leku irekia ekainean zabaldu ziren; garajeak eta aparkalekuak irailean eta gainerakoa hurrengo hilabeteetan irekiko da.
Obrak	Urkizuko bizilagun batek eskatu du espaloi zabalagoak egiteko Arraguetan.	Aurreikusita dago kale horretako etxebizitza batzuk botatzea, ingurua berrurbanizatuko da, eta espaloiak zabaldu egingo dira.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

Saila

Laburpena

Hirigintza

Eskatu du ahalik eta azkarren bota dadila Arragueta kaleko 17 zenbakia.

Hasiera eman zaio Arragueta kaleko 19 zenbakiko eraikinaren aurri-deklarazioari, bi eraikinak bota ahal izateko.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Erdigunea-ekialdea

Saila

Laburpena